



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

www.bmf-fvm.org

<https://www.facebook.com/Bmf-Fvm/597553177057267>

BMF- aren BATZAR OROKOR ARRUNTA

Bilbon 2015eko martxoaren 26an, arrotsaldeko 19etan, bigarren deialdian, BMF-aren Batzar Orokor Arrunta izan da.

Honen buru, BMF-eko lehendakaria duelarik: Jose Ramón Alonso, eta idazkari bezala, BMF-ko idazkaria ere dena: M^a Carmen Merino. Zuzendaritza Batzarordeko kideak ere presente egonez: Victor Vivar, Txomin Garcia, Matilde Sanz eta Mikel Barcenilla, eta Ricardo Hernani-ren absentsia barkatuz

BILDUTAKOAK:

KLUBAK:

Aldatz Gora M.T., Artarrai G.M., Aurrera M.T. ,AtxerreM.K.T., Baskonia M.T, Burtotza M.T, C.O. Bidea, Egunsentia C.M., Encartaciones, Erdella M.T., Gallarreta C.A., Ganerantz M.T., Ganguren M.T., Ganzabal M.T., Goigain M.T. , Goiko Mendi G.A., Itxasgane G.A.,Juventus SD, Lezama Gailur M.T.,Lutxana C.A. , Mirugain M.E., Munarrikolanda M.T. eta Untza M. T. Gonbidatu bezela (botorik gabe) Trarlazo M. T.

Guztira (23 klub botorako eskubidearekin , 58 boto zenbatzen dituelarik)

KIROLARIAK:

José Ramón Alonso, Txaro Iglesias, Jon Iñaki Uriarte eta Víctor Vivar.

Guztira (4 kirolari, 4 botuekin)

Idazkariak presente daudenei ongietorria ematen die, beraien asistentzia eskertuz, deialdiarekin batera gonbidapen bat igorri dela informatzen du Batzarrera klub bakoitzaren beste pertsona bat joan dadila jakinaraziz, pertsona hau gonbidatu gisa agertzen da, beraz, botorako eskubidea ez du edukiko. Batzarraren aldetik oposiziorik ez dagonez, erabaki hau aho batez onartuta gertatzen da. Batzarrean, 23 klubek botorako eskubidearekin parte hartzen dutela komunikatzen du, eta kirolarien 4 ordezkari, 62 boto guztira, gehi 5 gonbidatu(botorik gabekoak).

BATZARRAREN OSAKETA:

Lehendakariak, Federazioaren Estatutuen 20. artikuluan jasotakoarekin ados, eta bertako idazkariak emandako datuak ikusita, Batzarra baliozkotasunez osatzen dela informatzen du

Ondoren, deialdiaren gai-zerrendan sartutako gai bide ematen zaie, BMF-aren Estatutuen 19. artikulua begiesten duen bezala, Gai-Zerrendaren barruan beste inongo gairik tratatzeko ez dela jaso informatuz.

Deialdiarekin batera guztiei igorri zaien 2015eko urtarrilaren 22ko Batzarraren akta aho batez onartzen da.

Diapositiba-aurkezpen baten bidez, Diruzainak BMF-eko Zuzendaritza-Batzordeak onartutako 2014ko jardutearen itxieraren datu ekonomikoak adierazten ditu. Ariketa hau, formalki dokumentatutako irizpideekin kudeatutako lehen ariketa delarik.



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

www.bmf-fvm.org

<https://www.facebook.com/Bmf-Fvm/597553177057267>

Joan den urtean onartutako aurrekontuarekin abiatze desberdinen konposizioaren xehatutako erkaketa egiten du, produzitutako aldaketak eta bere kontzeptu-justifikazioa era sakonean azalduz, baita azken hiru ariketetan zehar tamaina jakineko bilakaera adieraziz ere.

Federazioak kudeatutako jarduera espezifikoen eremuan, Eskola eta Eskola-Kirolari buruzkoen baterako tratamenduaren beharra azaltzen du, nahiz eta soilik BMF-eko aurrekontuen ahokadurararen ikuspegiaren azpian izan.

2015eko Aurrekontuari buruz, Diruzainak 2014 ekitaldiaren itxieraren antzeko modelo planteatzen du, atal eta kontzeptu adierazgarrienei begira proposatutako tamainen erakusketa eginez.

Aterpe eta Klubetarako diru-Laguntzen kapituluak tratatzerakoan, BMF-ko Presidenteordeak, aterpearen komisia jada osatua izan dela informatzen du, hurrengo pertsonak osatuta egonez: Agustin Otaola Viñagra, Txomin Ocerinjauregui Eguiluz, Víctor Vivar Moreno eta Joseba Elorrieta Mendiola, aterpeko gaurko arduraduna (botorik gabekoa). Kontratuari dagokionez, gaurko baldintzen mantenua zaila dela dio, eta hurrengo sinatuko denean hauek aldatu behar izango liratekela.

Klubetarako BMF-aren Diru-Laguntza banaketaren gaiari dagokionez, jasotako diru-laguntzen 42 eskaerak behin ikuskatuak, hauen % 50 aldatuak izan direla erakusten du. Emaizak eraginda ateratzen diren klubei jakinaraziko zaie aipaturiko aldaketaren arrazoiarekin batera. 2014rako zuzendutako kantitateak hurrengoak izan ziren:

Federatuen artean banatzeko kontzeptuan 8300 €,

Jardueren artean banatzeko kontzeptuan 21000 €

Haur eta gazteen artean 6 € federatu bakoitzeko, guztira 2646 €

Jarduera berezien kontzeptuan 4000 €

Lehendakariaren eta Zuzendaritza-Batzordearen gainerako kideen aldetik, Diruzainak esandako tamainaren barruan, BMF-aren jarduerako printzipio orokor bezala ezartzen diren eta ekiten ari diren edo aurrez ikusita dauden jarduera korporatiboetako zuzendutako inbertsioen berrikustea egiten da: Heziketa eta bizikidetasun-jardunaldiak, hitzaldiak, "Hainbat urte, hainbat mendi" Lehiaketaren jarraipena, Klubei zuzendutako heziketa orokorra eta espezifikoa federatuentzat (bide-Teknikarien kasua), etab. Atal honetan, Lehendakariak, berriro ere, Klubetako aldetik interesgarriagoak diren jardueretako buruzko beraien iritzia aipatzea planteatzen du, edo hauek beste batzuk planteatu dezteela eskatuz, Federazioaren posta elektronikoa erabiliz, eta hauen gainean, Zuzendaritza-Batzordeak azkeneko erabakiak hartuko dituela argituz.



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

www.bmf-fvm.org

<https://www.facebook.com/Bmf-Fvm/597553177057267>

Ondoren galderen txanda bat irekitzen da, bertaratuen aldetik inongo argibide gehigarririk eskaturik gabe, beraz zuzenean bozketara pasatzen da, bai 2014 ariketaren Kontuen, bai 2015 ariketarako Aurrekontuaren ahobatezko onespeneko emaitzarekin.

Lehendakariak, Jon Balda Eskolako Zuzendariaren aldaketa komunikatzen du, Ander Gómez zuzendari berria izanez.

Tratatzeko gai gehiagorik gabe Batzarra amaiturik hartzen da.

Sinatuta: M^a Carmen Merino
Idazkaria

Sinatuta: José Ramón Alonso
Presidentea